

memoria *hegoa* laburpena 2014

- sareak
- jarduerak
- prestakuntza
- sentsibilizazioa
- hezkuntza
- ikerketa
- argitalpenak
- baliabideak
- irakaskuntza
- aholkularitza
- kontsultoretza
- organigrama
- foroak
- txostena
- graduondokoak
- masterra
- doktoretza
- garapena
- lankidetzak
- hitzaldiak
- ikastaroak



Bertsio osoa, hemen:
www.hegoa.ehu.eus

1. Aurkezpena

Txosten-laburpen honetan, gure erakundeak 2014. urtean egindakoa jasotzen da, haren jardueraren arlo guztietan. Unibertsitateko irakaskuntzaren arloan, UPV/EHUK eskaintzen dituen graduondokoetan, oro har, gutxitzeko joera gertatu bada ere, eta laneratzeko zailtasunengatik ere, gure hiru graduondokoek eskari ona izan dute. Halaber, Hegoak prestakuntza espezializatuko ikastaroak antolatu ditu, bai hemen (*Globalizazioan, Lankidetzan eta Mugimendu Sozialetan Espezializatutako III. Ikastaroa*, EHNE-Bizkaiarekin batera, eta *Hezkuntza askatzailea. Ekintza eta eraldaketa gizarte globalean* izeneko ikastaroa), bai Latinoamerikan (*Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko ikastaroa* eta *Ekintzaitza Solidarioen Kudeaketarako Ikastaroa*, Lojako Unibertsitate Nazionalarekin batera –UNL–). Era berean, irakaskuntza-jarduera eraman da aurrera beste autonomia erkidego batzuetako zein nazioarteko beste unibertsitate eta erakunde batzuek eskainitako graduondoko ikastaro ugaritan.

Gure erakundeak egiten duen prestakuntzako eta sentsibilizazioko lana eztabaidarako eta gogoetarako jardunaldi eta mintegiak antolatuz osatzen da (nabarmendu behar dira *Ikerketa Feministarako Metodologia: Giza Eskubideen Aldeko Tresnak eta Aplikazioak* II. Jardunaldiak, Donostian), eta, aurreko urteetan bezala, Hegoa eratzten duten pertsonen hainbat prestakuntza-ikastaro, lantegi, foro, topaketa eta elkarrizketatan parte hartu dute.

Hegoa Institutuko ikerketa-taldeek lan egiten jarraitu dute, eta lan horretatik liburuak, lan-koadernoak eta zientzia-aldizkarietarako artikuluak sortu dira. Doktoretza programak beste urte batez atxiki du *Bikaintasuneranzko Aipamena*, eta, urte honetan, programaren barruan, sei doktoretza-tesi irakurri dira eta hamalau tesi gehiago matrikulatu dira.

Garapenerako Hezkuntzaren arloan, Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarra nabarmendu behar da. Gasteizen egiten zen, *Hezkuntza*

aldatzea mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde! izenburuarekin, eta Europako zein Latinoamerikako 300 pertsona baino gehiago joan ziren.

Urte honetan zehar, datu-basean eginiko kontsulta-kopuruak handitzen jarraitzeaz gain, Dokumentazio Zentroan tresna berritzaile bat gehitu da, *Hegoa* + metabilatzailea, eta *Tesouro 2014* sailkapen-sistema berritzen bukatu da. Bi prozesuon xedea zentroak eskaintzen dituen zerbitzu digitalen integrazioa hobetzea izan da.

Aholkularitzaren arloan, Bizkaiko Foru Aldundiari ematen zaizkion zerbitzuak aurrera eramaten jarraitu da, bai eta Eibar, Irun, Ordizia, Beasain eta Errenteriako udalei ematen zaizkienak ere. Halaber, Ekonomia Solidario eta Popularraren Behatokia sortzen lagundu da Limako San Marcos Unibertsitatean, "Andeak" programaren nahiz UPV/EHUn eta UNMSMren arteko esparru-hitzarmenaren barruan. Atal honetan, bereziki aipatu behar da *Garapenerako Politiken Koherentzia Euskadin* txostena egin izana, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) hala eskaturik; Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politikei buruzko Ikerketa-taldeak taxutu zuen txosten hori. Estatus azpiko lankidetzaren arloan egiten den horrelako lehen lana da.

Azkenik, hainbat aldizkari akademiko eta dibulgazio-aldizkarietako edizio-kontseilu, zientzia-kontseilu eta aholku-kontseiluetan, zenbait erakunde eta nazioarteko saretako zuzendaritza-kontseiluetan parte hartu da, bai eta Herrien Auzitegi Iraunkorreko errelatoretzan eta presidentetzan ere.

Luis Guridi
Hegoako zuzendaria

2. Prestakuntzako, sentsibilizazioko eta hezkuntzako jarduerak

Garapenerako prestakuntzako eta hezkuntzako jarduera hainbat irakaskuntza-motaren bitartez gauzatzen da. Batetik, Dokto- retza Programa, graduondoko ikastaro ofizialak –Europako Goi Hezkuntzako Ikasketen (EGHI) formatura egokituta– eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) eskaintzen dituen titulu pro- pioak daude.

Garapenari buruzko Ikasketak izeneko Dokto- retza Programak atxiki egin du Hezkuntza Ministerioak 2011. urtean eman zion *Bikintasuneranzko Sipamena*. Urte honetan zehar, sei dok- toretza-tesi irakurri dira, eta hamalau tesi gehiago matrikulatu dira. Master ofizialak –*Globalizazioa eta Garapena* eta *Nazioar- teko Lankidetzak eta Garapena*– eskatuena izan dira UPV/EHUk duen graduondoko eskaintzaren barruan; hain zuzen, aurretiko izen-emateak 200 baino gehiago izan dira. *Garapen Lankidetzak- rako Estrategiak, Agenteak eta Politikak* onlineko masterrak ere 2013-2014ko edizioa burutu du.

Beste alde batetik, Hegoa Institutuko kideek Espainiako, Europako zein Latinoamerikako hainbat unibertsitatek eskaintako gra- duondoko ikastaro ugaritan parte hartu dute (dokto- retzak, mas- terrak, espezializazio-ikastaroak eta diplomak).

Hegoa Institutuak, halaber, prestakuntza espezializatuko beste ikastaro batzuk eskaini ditu, hala nola, *Hezkuntza Askatzailea. Ekintza eta eraldaketa gizarte globalean* izeneko ikastaro erdi- presentziala. Ikastaro horretan oinarriturik, 2015-2016rako onli- neko master-proposamen berria eskainiko da titulu propio gisa, *Nazioarteko Lankidetzak eta Hezkuntza askatzailea* izenarekin.

Urte honetan, *Globalizazioan, Lankidetzan eta Mugimendu Sozialetan Espezializatutako III. Ikastaroa* egin da, EHNE- Bizkaiarekin batera antolaturik; ikastaroan, Latinoamerikako mugimendu sozialetako eta antolakundeetako hainbat kidek

parte hartu zuten, La Via Campesinako eta Emakumeen Mundu Martxako zenbait kide tartean zirela, besteak beste.

Halaber, zenbait prestakuntza-ekimen gauzatu ziren Latinoa- merikan, hala nola, *Ekonomia Solidario eta Komunitarioko Unibertsitate Diploma*, La Pazeko San Andrés Unibertsitate Na- gusiko Garapenerako Zientzietako graduondokoaren bitartez (CIDES), eta *Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko Ikastaroa* eta *Ekintzaitza Solidarioen Kudeaketarako Ikastaroa*, biak Loja hirian (Ekuador).

Nabarmendu behar da *Garapenerako Hezkuntzako IV. Biltzarra* “*Hezkuntza aldatzea mundua aldatzeko... Hezkuntzako ekintza askatzaile baten alde!*” antolatu izana urrian, Gasteizen.

Era berean, *Espainiako 2014ko Foro Globalaren* aurrean, *Krisia- ren eta Gizarte-errealitatearen Inguruko beste Begiradak* izene- ko eztabaida-foroa egin zen Bilbon; eta Donostian, *Ikerketa Feministarako Metodologiari buruzko II. Jardunaldiak* eta *Elika- dura-burujabetzaren alde Unibertsitatea eta Jendarteko Ekime- nak* uztartzen jardunaldia.

Jarduera horren guztiaren osagarri, hainbat ikastaro, hitzaldi, lantegi eta mintegi ere egin ziren, beste unibertsitate, GGKE edo erakunde batzuek eskaturik.

3. Ikerketa-jarduerak

Badira zenbait ikerketa-talde Ikerketaren arloko jarduera aurrera eramateko, haietan Hegoa Institutuari atxikitako irakasle eta ikertzaileek nahiz langile lan-kontratadunek parte hartzen dutelarik.

Urte honetan zehar, jarduera hori hiru ikerketa-taldek gauzatu dute, eta haietako bi Eusko Jaurlaritzak halakotzat onartu ditu 2013-2015 hirurtekorako:

- a) *Giza Segurtasuna eta Tokiko Giza Garapena*. Ikerketa-talde honek tokiko giza garapenaren inguruko hainbat gai ikertzen ditu, bai alderdi teorikoenei begira, bai beste hainbat alderdi aztertuz, hala nola, haren dimentsioak ulertzea, ekonomia sozial eta solidarioa kasu, generoaren eta TGGaren arteko harremanak, parte-hartzearen eta gobernantzaren alderdiak, eta tokikoaren eta globalaren arteko harremanak. Beste lan-ildo batzuek gatazken, bakearen eta garapenaren arteko harremanak ikertzeko xedea dute, bereziki emakumeen rolari dagokionez.

Taldeakideak: Alfonso Dubois, Eduardo Bidaurrezaga, Luis Guridi, Jokin Alberdi, Yolanda Jubeto, Mertxe Larrañaga, Juan Carlos Pérez de Mendiguren, Unai Villalba, Karlos Pérez de Armiño, Patxi Zabalo, Irantzu Mendia, Iker Zirion, Maite Fernández-Villa, Gonzalo Fernández, Amaia del Río, Carlos Puig Gloria Guzmán, José Manuel González-Casanova eta Itziar Mujika.

Arlo honetan sartzen da, orobat, Mendebaldeko Saharako giza eskubideei buruzko ikerketa-ildo bat, Carlos Martín Beristainek zuzendua.

- b) *Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politikak*. Talde honek egiten duen lanean, garapenari buruzko eztabaidetan zein lankidetzarako politiketan gertatzen

ari diren aldaketak aztertzen dira batik bat, lankidetzaren deszentralizatuko politikei dagokionez bereziki. .

Taldeakideak: Koldo Unceta, Iratxe Amiano, Jorge Gutiérrez, Irati Labaien, María José Martínez, Michel Sabalza, Unai Villeña, Idoye Zabala, Yesica Álvarez eta Natalia Millán.

- c) *Mugimendu sozialak*. Taldeak bere hiru ildo estrategikoak sendotu ditu 2014an zehar: elikadura-burujabetza; jakintza-aniztasuna eta prestakuntza politiko emantzipatzailea; eta elkartasun internazionalista.

Taldeakideak: Zesar Martínez, Luis Miguel Huarte, Juan Hernández, Yolanda Jubeto, Efrén Areskurrinaga, Jokin Alberdi, Gonzalo Fernández, Xarles Iturbe, Silvia Piris, Amaia del Río, Gema Celorio, Unai Vázquez, Beatriz Casado, Javier García, Javier González, Berta Malvárez eta Davide Angelilli.


PIU-Hegoa. 2014an zehar, jarduerako hirugarren urtean, lanean jarraitu du Hegoa-Garapenari buruzko Ikasketak deritzon prestakuntza- eta ikerketa-unitateak; hain zuzen, UPV/EHUK ikerketaren kalitatea hobetzen laguntzeko sortu zituen PIUetako bat da. Hegoak koordinatzen du PIU hau, eta haren barruan daude, gainera, Gezki institutua eta hiru ikerketa-talde finko, alegia: Politika Publikoei buruzko Ikerketa-taldea; Giza Segurtasunari, Tokiko Giza Garapenari eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Ikerketa-taldea; eta Civersity.

Ikerketa-jarduera horretatik guztitik liburuak, lan-koadernoak, zientzia-aldizkarietarako artikuluak, eta biltzarretarako txostenak eta komunikazioak sortu dira. Era berean, hainbat aldizkarietako zientzia-batzordeetan, edizio-kontseiluetan zein erredakzio-batzordeetan parte hartu da.

4. Irakaskuntzarako eta ikerketarako baliabideak

Gaur egun, Dokumentazio Zentroak 19.900 erregistro baino gehiago dauzka bere Liburutegi Digitalean. Hori da, hain zuzen, Hegoak 1988az geroztik bilduriko ondarea, eta han daude jasota garapenari eta lankidetzari buruzko orain arteko eztabaida nagusiak. Ondare hori edukitzeari eta erabiltzeari esker, Institutuko irakasle eta ikertzaileek zein gizarte-agenteez eta herritarrek, oro har, aurrera egin ahal izan dute garapenerako lankidetzaren lan eta politketan.

Dokumentazio Zentroaren zerbitzuek azken hamarkadan izan duten bilakaera bat dator zentroa informazioaren eta komunikazioaren teknologietara aldatzarekin eta haietara egokitzarekin. 2014. urtean, Liburutegi Digitaleko irakurgaien online banaketa nabarmendu da, 781.354 PDF agiri deskargaturik. Horren arabera, deskargak %9,8 gehitu dira, aurreko urtekoen aldean.



Konsultak eta maileguak: 2006 (972); 2007 (686); 2008 (780); 2009 (553); 2010 (1.175); 2011 (1.645); 2012 (1.117); 2013 (1.313); 2014 (954) **Liburutegi Digitala (ikusitako orriak, Google-ren arabera):** 2006 (46.952); 2007 (56.837); 2008 (53.532); 2009 (77.378); 2010 (86.632); 2011 (148.174); 2012 (117.796); 2013 (125.985); 2014 (114.380) **Pdf agirien deskargak:** 2006 (6.905); 2007 (15.905); 2008 (64.095); 2009 (160.434); 2010 (186.757); 2011 (216.928); 2012 (514.036); 2013 (711.398); 2014 (781.354) **Buletina (ikusitako orriak, Google-ren arabera):** 2006 (500); 2007 (6.500); 2008 (9.500); 2009 (37.836); 2010 (25.656); 2011 (13.709); 2012 (12.073); 2013 (2.590); 2014 (3.836) **Hemeroteka (ikusitako orriak, Google-ren arabera):** 2007 (3.200); 2008 (3.800); 2009 (24.937); 2010 (39.234); 2011 (11.315); 2012 (14.401); 2013 (10.812); 2014 (8.148) **Hegoa - argitalpenen web-orria (ikusitako orriak, Google-ren arabera):** Abuztu-abendua 2011 (16.356); 2012 (35.008) y (67.043 deskargak); 2013 (52.536) y (144.758 deskargak); 2014 (52.045) **Multimedia (ikusitako orriak, Google-ren arabera):** 2013 (2.590); 2014 (7.141)

5. Aholkularitzako, kontsultoretzako, laguntza teknikoko eta lankidetzako programetako jarduerak

Lankidetzako programetan, 2014. urtean, aurrera eramanez diren aholkularitzako eta laguntza teknikoko jarduerak zenbait ekimenetara bideratu dira:

Erakundeentzako, aldundiarentzako eta udalentsako aholkularitza

Bizkaiko Foru Aldundiari laguntza teknikoko hainbat zerbitzu eman zaizkio 2014. urtean zehar, duela hamar urte baino gehiagotik hona Hegoak duen hitzarmenaren barruan. Besteak beste, 2013-2015erako gida-planarekin batera aurkeztu zen Lankidetzako Dekretua taxutzeko zerbitzua egon zen. Horrez gain, aholkularitza-lanak egin dira Eibar, Irun, Ordizia, Beasain eta Errenterriko udalen lankidetzaren arloko 2014ko deialdiarako.

Euskadiko garapenerako politiken koherentziari buruzko txostena

Txosten hau Garapenerako eta Nazioarteko Lankidetzarako Politikei buruzko Ikerketa-taldeak egin zuen Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziarentzat, Eusko Jaurlaritzak garapen eta lankidetzarako politiken aldetik abian jarritako politika publiko nagusien egoeraz diagnostiko xehe bat egite aldera. Txostena osatzeko, proposamen-multzo bat eman zen, epe labur, ertain zein luzerako, Euskadiko garapenerako politiken koherentzian aurrera egiteko.

Andeetako eskualderako proposamen ekonomiko eraldatzailerak: Tokiko garapen ekonomikoaren eta ekonomia sozial eta solidarioaren arteko loturak. Ekuador (PGM-2010BA/002 PESS programa)

Programaren helburua da ekonomia sozial eta solidarioko estrategia bat atontzea Loja probintzian (Ekuador), lehentasuna emanik gobernantza eta parte-hartzearen, generoaren, iraunkortasun ekologikoaren nahiz kulturartekotasunaren dimentsioei. Horretarako, osagai hauek landu dira: ikerketa eta

ezagutzaren kudeaketa; Lojako lurraldeko eragileen ahalmek indartzea, politika publikoetarako proposamenak osatzeko eta genero-ekitatearekiko ESSko esperientziak sustatzeko; eta ESSko elkarte-ekimenak indartzea, ekoizpenean, prozesatzean, balio-eranstean, merkatuetarako sarbidean, eta zirkuitu ekonomiko solidarioaren antolaketan, genero-ekitateko eta elikadura-burujabetzako ikuspegiak erantsita. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak (GLEA) finantzatu du.

Ekuadorreko Hego Eskualdeko ekonomia sozial eta solidarioko eragileak eta mugimendua indartzea (2013-LANK-46 proiektua)

Gipuzkoako Foru Aldundiak finantzatu du proiektua, eta GLEAk finantzaturiko PGM-2010BA/002 programa osatzen eta kofinantzatzen du, Loja probintzia eta Ekuadorreko Hego Eskualdeko eragileak sendotzeko helburuz (MESSE –Ekuadorreko ekonomia sozial eta solidarioko mugimendua– eta nekazari-antolakundeak, GAD –gobernu autonomo deszentralizatuak–, Gobernu Zentralaren erakunde deskontzentratuak eta Lojako Unibertsitate Nazionala), politika publikoetarako proposamenak osatzeko eta emakumeen eskubide ekonomikoak jasotzen dituzten ESSko esperientziak sustatzeko.


Andeetako eskualdeko ekonomia solidarioko mugimendua indartzea, emakumeen eskubide ekonomikoak nabarmenduta. Bolivia, Ekuador eta Peru (PGM 2012BA/013 AndESS programa)

2014. urtean, Bolivian, Ekuadorren, Perun eta Euskadin hainbat jarduerak egin dira ikerketaren, ezagutzaren kudeaketaren, garapenerako hezkuntzaren eta erakundeak indartzearen alorrean. Era berean, Bolivian, emakume-elkarteek bultzatutako ekoizpen-ekimenei laguntzeko osagaia gehitu da (La Pazeko iparraldeko goi-ordokian kokatutako udalerrietan), ekonomia solidarioaren eta emakumeen eskubide ekonomikoen esparruan.


6. Hegoa elkartearen ekonomia-txostena

Emaitzen kontua, 2014ko abenduaren 31n (eurotan adierazita)

Hegoa Elkartearen 2014ko kontuak. Eurotan. 2014/12/31



■ Eusko Jaurlaritza ■ Gipuzkoako Foru Aldundia ■ Bizkaiko Foru Aldundia
■ Euskal Fundoa ■ Espainiako Gobernua ■ Fondo propioak ■ Kutxabank. BBKren Gizarte-Ekintza ■ UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako ■ Vitoria-Gasteizko Udala ■ Beste ekarpen batzuk



■ Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak) ■ Langile guztien gastuak (17,24 lanaldi oso) ■ Kalte-ordainak. Langileen murrizketa ■ Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko ■ Pertsonentzako laguntza. Master ofizialak eta NBEkoak ■ Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)

2014ko ekitaldiari egotzitako sarrerak	1.817.125,57	%100,00
Eusko Jaurlaritza	1.257.851,92	%69,22
Gipuzkoako Foru Aldundia	200.528,69	%11,04
Bizkaiko Foru Aldundia	30.000,00	%1,65%
Euskal Fundoa	78.323,54	%4,31
Espainiako Gobernua	70.026,50	%3,85
Fondo propioak	136.047,33	%7,49
Kutxabank. BBKren Gizarte-Ekintza	9.000,00	%0,50
UPV/EHuren laguntza master ofizialetarako	20.000,00	%1,10
Vitoria-Gasteizko Udala	10.000,00	%0,55
Beste ekarpen batzuk	5.347,59	%0,29

2014ko ekitaldiari egotzitako gastuak	1.928.236,37	%100,00
Tokian tokirako transferentziak (proiektuen gastuak)	525.837,03	%27,27
Langile guztien gastuak (17,24 lanaldi oso)	795.909,30	%41,28
Kalte-ordainak. Langileen murrizketa	119.729,52	%6,21
Egoitzako gastuak, proiektuak gauzatzeko	420.243,65	%21,79
Pertsonentzako laguntza. Master ofizialak eta NBEkoak	42.142,00	%2,19
Gastu orokorrak (langileenak izan ezik)	24.374,8	%1,26
2014ko ekitaldiko emaitza (galera)	-111.110,80	

7. Erakunde-organigrama

Hegoa Institutuko Zuzendaritza Kontseilua

Zuzendaria: Luis GURIDI Idazkaria: M^a José MARTÍNEZ Kideak: Iratxe AMIANO, Gema CELORIO, Michel SABALZA, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Yesica ÁLVAREZ, Carlos PUIG, Patxi ZABALO, Jokin ALBERDI, Idoye ZABALA, Almudena SAINZ.

Hegoa Elkarteko Zuzendaritza Batzordea

(Herri-onurako elkartearen izendatua. EHAA, 165. zk., 2003ko abuztuaren 26a)

Batzordeburua: Patxi ZABALO Batzordeburuordea: Mari Luz DE LA CAL Idazkaria: Eduardo BIDAURRATZAGA Diruzaina: Luis GURIDI Kideak: Mikel DE LA FUENTE, Mertxe LARRAÑAGA, Txema NAVARRO, Yolanda JUBETO.

Hegoa institutuari atxikitako irakasleak

Xabier AIERDI, Jokin ALBERDI, Efrén ARRESKURRINAGA, Xabier BARRUTIA, Roberto BERMEJO, Eduardo BIDAURRATZAGA, Mari Luz DE LA CAL, Mikel DE LA FUENTE, Juanjo CELORIO, Marian DÍEZ, Alfonso DUBOIS, Iker ETXANO, Xabi GAINZA, Luis GURIDI, Jorge GUTIÉRREZ, Juan HERNÁNDEZ ZUBIZARRETA, Luis Miguel HUARTE, Pedro IBARRA, Yolanda JUBETO, Mertxe LARRAÑAGA, Eduardo MALAGÓN, Zesar MARTÍNEZ, Elena MARTÍNEZ TOLA, Mari José MARTÍNEZ, Irantzu MENDIA, Karlos PÉREZ DE ARMIÑO, Juan C. PÉREZ DE MENDIGUREN, Víctor POZAS, Uri RUIZ BIKANDI, Joseba Andoni SAINZ DE MURIETA, Koldo UNCETA, Unai VILLALBA, Idoye ZABALA, Patxi ZABALO, Iker ZIRION, Imanol ZUBERO.

Talde teknikoa

Koordinatzaile nagusia: Gonzalo FERNÁNDEZ. Dokumentazioa eta irakaskuntza: Maribi LAMAS, Itziar HERNÁNDEZ, Marisa LAMAS, Amaia GUERRERO, Iñaki GANDARIASBEITIA. Ikerketa: Gloria GUZMÁN, Javier GONZÁLEZ, Silvia PIRIS, Yenifer GARCÍA, Sergio CAMPO. Hezkuntza: Gema CELORIO, Amaia DEL RÍO, Alicia LÓPEZ DE MUNAIN. Aholkularitza eta kontsultoretza: Carlos PUIG, Michel SABALZA, Maite FERNÁNDEZ-VILLA, Tatiana MONTENEGRO. Finantzak: Pilar JURADO, Almudena SAINZ, Joana DEL OLMO. Idazkaritza eta administrazioa: Joana DEL OLMO, Rosario URIARTE.

Sareak eta lankidetzak

Red Española de Estudios del Desarrollo (REEDES) • Agrupación de Investigación y Docencia de África (ARDA) • Euskadiko GGKE-en Koordinakundea (kide laguntzailea) • Coordinadora de ONGD España (kide laguntzailea) • Harresiak Apurtuz - Euskal Herriko etorkinen laguntzarako GKE-en koordinakundea • Women in Development Europe (WIDE) • European Association of Development Research and Training Institutes (EADI) • Red Europea de Información y Documentación sobre América Latina (REDIAL) • Sociedad Internacional para el Desarrollo (SID) • Sociedad Española de Documentación e Información Científica (SEDIC) • Artxibategi, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Elkarte (ALDEE) • Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (REAS) • FIARE-Banca Etikoa • Asociación Española de Investigadores para la Paz (AIPAZ) • Euskal Herriko Elikadura Burujabetzaren aldeko Eragileen Aliantza • Grupo de Estudios Africanos (GEA) • Mosaiko • Enlazando Alternativas • Tesela.

Langile laguntzaileak

Eskerrak ematen dizkiegu, urtean zehar, modu batean edo beste batean, hainbat jardueratan Hegoa Institutuaren lankide izan diren pertsona guztiak.